

Manuel Lekuona Etxabeguren (Oiartzun, 1894-1987)

## Manuel Lekuona, zubigilea

Oiartzun, 2012-11-07

Arratsalde on, jaun-andreok!

Manuel Lekuona Etxabeguren hil zela 25 urte bete dira aurten, eta horregatik bildu gara gaur hemen, Oiartzungo udaletxean: euskaldun bikain hura gogoratu eta omendu nahi dugulako, horrenbeste zor diogu eta.

Hitzaldi labur-laburra egiteko eskatu didate eta, laburtu beharrez, Manuel Lekuonak erretiroa hartu zuen garaira noa zuzenean.

Jubilatu zenean, Oiartzuna itzuli zen Manuel Lekuona, eta bere *Idazlan guztiak* argitaratzeko prestaketa-lanetan jardun zuen, nekagaitz; harik eta Oiartzunen bertan hil zen arte.

Lan-mahaiaren aurreko apalategian dauzkat zenduaren *Idazlan guztiak*. Sorta mardula, alajaina! Bat, bi, hiru... hamaika! Bai, hamaika liburu trinko behar izan ziren On Manuel zenak idatzitakoen bilduma azaltzeko. Eta beste liburu bat, hamabigarrena, aurkibideetarako: hirurehundik gora orrialdeko zerrenda luzea, aurkibideetarako bakarrik. Ez zen langile makala; ez horixe! Eta oraindik ere izango dira, noski, argitara gabeko haren ohar eta lan baliosak.

Harrigarria da landu zituen gaien ugaritasuna: Ahozko Literatura, Eusko Etnografia, Artea, Historia, Euskeralogia, Antzerkia, Haur-kantak, Gabon eta Eliza-kantak, *Zigor* izeneko operaren libretoa...

Dakizuenez, apaiza genuen On Manuel; lanbidez, irakaslea: Gasteizko Apaiztegiko katedratikoa, Arkeologia Sakratuko katedratikoa, Euskarazko katedratikoa eta Hebraierazko katedratikoa. Gainera, adituek diotenez, berebiziko dohaiak eta jakituria zituen arte-kritikari bikaina izateko ere (gogoratu *El Greco* ospetsuaren koadro bi aurkitu zituela: Gatzagan, bata; Iraetan, bestea).

Zer genuen, baina, Manuel Lekuona: XX. mendeko euskalduna, XX. mendeko oiartzuar gailena, ala XV. mende bukaerako florentziar gailena? Esango nuke, zinez, oparo uztartu zituela bere baitan Errenazimentua eta Euskal Pizkundea. Esango nuke, beraz, goi mailako euskal humanista zela; eta humanista, Joxe Migel Barandiaran zenak azaldu zigun ikuspegiaren arabera:

"El vasco ha guardado a través de los tiempos y de las influencias su propio y original sistema de valores, con unos derechos, unos deberes y una responsabilidad, o sea: es todo el sistema jurídico y moral en el cual están insertos todos los valores del hombre. Este sistema de valores, basado en la mencionada concepción del mundo y del hombre, es el elemento más importante de una etnia, porque es el más característicamente humano. Y en eso descansa el humanismo."

[J.M. Barandiaran, *Hablando con los vascos*, 32. or.]

Hitz horren esanahia argitu beharra ikusirik edo, errenteriar gailen batek, Koldo Mitxelena zenak, hauxe idatzi zuen *humanismo* hitzaren adieraz:

"... aquí hay una cierta manera un tanto exclusiva de entender el humanismo, que a mí no me gusta. Entienden a menudo por humanismo algo difuso entre lo poético y lo artístico, casi hasta lo cursi; desde luego que acientífico. Estamos de acuerdo, claro, en que la ciencia es esencialmente humana, porque, que se sepa, el hombre es el único animal que ha producido ese producto que es la ciencia, y, por lo tanto, la ciencia es un producto humano, y el humanismo no puede estar reñido con la ciencia, ni la ciencia con el humanismo."

[Koldo Mitxelena, *Hablando con los vascos*, 101. or.]

Manuel Lekuonak ederki uztartu zituen bere baitan Errenazimentua eta Euskal Pizkundea: haren emaitzen zerrenda ikusi besterik ez dago. Bestalde, ederki uztartu zituen humanismoa eta zientzia ere: metodologia zorrotzeko langile trebea zen, aditu zuhurra, jakintsu gozoa eta gizalegeko gizona.

Latinezko esaera zahar bat bada *Omnibus artibus, commune vinculum* dioena, eta esaera hori oso egoki dator kio Manuel Lekuonaren jarduerari; ardatz beraren inguruan antolatu baitzituen bere lan guztiak. Ederki ezagutzen zuen, inondik ere, jakintzaren eta artearen alor desberdinek elkarrekin duten zerikusia edo barne-lotura. Baita fruitu emanarazi ere!

Isilka bezala egin zigun, beraz, zubi nagusi bat: humanismoaren eta zientziaren arteko zubi nagusia; teknikaren eta espezializazioaren lilurapean gaudenontzat, izan ere, eredu bikaina baita On Manuelek eragin zuen jakintzaren ikuspegi aberatsa eta aberasgarria: intelektual euskaldunaren eredu.

Ageriago eta nabarmenago egin zigun, ordea, zubirik nagusia: kulturaren ikuspegiari dagokiona. Eta eskerrak ozenki salatu zuen kulturaren ikuspegi aristokratikoa! Zertan ote lirateke gaur egungo euskalgintza eta bertsolaritza, baldin eta Manuel Lekuonak ez balu frogatu izan Ahozko Literatura ere lehen mailako kultura agerpidea dela?

Hona hemen haren idatzietatik hartutako pasarte bat:

Hay una propensión muy generalizada a juzgar con un cierto aire de conmisericordia, si ya no de verdadero desdén, todo lo que no está consignado por escrito. No cabe duda

de que la escritura es un gran medio para el adelantamiento cultural de la Humanidad; pero no es el único, ni mucho menos. El hombre iliterato tiene también su cultura, y hasta cultura muy adelantada en algunos aspectos, como, por ejemplo, en las Ciencias Morales, en el arte de la expresión oral del pensamiento --expresión exacta-, en las artes de la Elocuencia, y en las artes de carácter dinámico como la Danza y la Música.

Esas consideraciones nos permiten comprender la posible categoría y altura de las producciones de la Literatura Oral. Producciones que --dentro de su módulo *sui generis*-- son de verdadero valor literario. Prueba de ello es que la Literatura actual trata de imitar con loco empeño algunas de ellas.

[Manuel Lekuona, *Idazlan Guztiak* 1. lib., 546. or.]

Esan beharra dago -ez baita huskeria- Manuel Lekuonak aurea hartu ziola Lévi-Strauss delako antropologo ospetsuari jende xumearen kulturagintzaren aldeko argudioetan. Horretarako, ahozkotasunaren literatura-balioak adierazteko, era askotako arrazoiei eman behar izan zien buelta. Entzun, Lekuonaren hitzok:

Bai musikaz, bai hitzez benetan zoragarriak dira gure artzain-kantak (...) Baina neroni entzunik nago Aita Donostia zena lantua jotzen "Arranoak bortietan" aztertzean; eta lantua joaz nola esaten zigun lastima handia dela kanta hegalaria eder horretan, arranoaren hegada gaingirozkoa pintatu ondoren, olerkariak giro horri ez eustea, eta jaistea, gero esaten dituen huskeriatara.

*Ni ere, lehen, andereki  
ebilten, kanberetan.  
Orai, aldiz, ardura-ardura  
nigarra dizut begietan.*

Aita Donostiak, bere garaiko giroari jarraikiz, bukerak sentikor horri nolana hiko huskeria zeritzon. Azkuek ere zenbait kantu erdara-kutsukori egiten dizkion muxinak oso ezagunak dira. Horrelako giroa zegoen orduan. Gaur gauzak beste era batera irizten ditugu: hitzari baino pentsamenduari hobeto begiratuz.

[Manuel Lekuona, *Idazlan Guztiak* 1. lib., 13-14. or.]

Baina pentsamenduari dagokionean ere alorrek ongi bereizi beharra zegoen, baldin eta kanon klasikoak denak irentsiko ez bazituen. Sendoak, irmoak dira On Manuelen hitz hauek:

Yo expresamente digo e insisto en que los fenómenos de nuestra peculiar Literatura están completamente al margen de toda la Poesía Clásica, y que es necesario examinarlos y analizarlos a la luz de otra Poética muy distinta de la clásica.

[Manuel Lekuona, *Idazlan Guztiak* 1. lib., 561. or.]

Zuzen zegoen, eta -behingoz, bederen- arrazoiak zerbaiterako balio izan zuen, On Manuel berberak adierazi zuenez:

Mis observaciones de los años 1930 y 1935 sobre las aparentes incoherencias y la mentalidad mágica de nuestras *kopla zaharrak*, etc., hallaron en su día un eco de buena acogida, como solución al problema de tipo estético que plantea nuestra Literatura Oral. Una acogida de gran satisfacción aun entre aquellos que antes apreciaban como verdaderas aberraciones tales aparentes incoherencias, los cuales, en vista de mis explicaciones, vieron que el problema entraba en los estadios de una posible seria investigación y estudio científico.

[Manuel Lekuona, *Idazlan Guztiak* 1. lib., 560. or.]

Horrelaxe egin zuen, zorionez, euskal herri-tradizioarekiko zubia. Eta honelaxe laburbildu zuen usadioaren eta ahozkotasanaren garrantzia:

El vasco se mueve, se ha movido siempre, dentro del estadio oral, consuetudinario. Nuestra cultura ha sido eminentemente oral. La escritura, para nuestro pueblo, es algo posterior, algo postizo.

[Manuel Lekuona, *Idazlan Guztiak* 1. lib., 543. or.]

Manuel Lekuonak garaipen bikaina lortu zuen euskal kulturarentzat: ahaleginaren ahaleginez, asmoz eta jakitez, txapeldun gertatu zen denon onerako. Eta zalantzarik gabe esango nuke berebiziko poza hartu zuela horrekin. Hara zer zioen On Manuelek berak:

En el terreno de la Euskeralología tengo un haber muy importante: el haber salvado la vida del Bertsolarismo Vasco con mis estudios sobre el tema; dando igualmente vida a todo lo referente a la producción poética de carácter oral.

[Manuel Lekuona, *Idazlan Guztiak* 12. lib., 102. or.]

Dagoeneko aipatu dizkizuet Manuel Lekuonak egin zizkigun bi zubi nagusiak: bata, humanismoaren eta zientziaren arteko zubia; bestea, kultura-ikuspegiaren eta herri-jakintzaren arteko zubia.

Hirugarren zubia gure hizkuntzari dagokiona da; hain zuzen ere, euskara batuaren eta herrian herriko euskararen arteko zubi egokiaren beharra aldarrikatu baitzuen Manuel Lekuonak hitz hauekin:

Batasuna hizkuntzaren bentaja "bat" da; baina, askotan, bentaja nahasia, konplikatu, beste bentaja batzuentzat kaltegarri gerta daitekeena. Hizkuntzak badu batasuna baino lehenagoko eta beharragoko gauzarik, bentaja handiagorik: adibidez, argitasuna. Hizkuntzak argia izan behar du, ezaguna, herrikoia: ahal balitz, hitza ahotik irten orduko, herriak entzutean, berehala ulertzeko modukoa.

Hizkuntzak badu beste bentaja bat ere, ez txikia: jatortasuna (halako jario gozo bat; gozoa eta garratza denbora berean: grazia). Modismoak dira, batez ere, hizkuntzari jatortasuna ematen diotenak: hots, gramatika arruntetik kanpora sortzen diren esaerak.

Batasuna lortzeko biderik errazena, berriz, gramatika arruntaz mintzatzea da; baina gramatika arruntaz mintzatu behar horrek lehenengo bazterten dituen gauzak, hain

xuxen, horiexek izan ohi dira: modismoak. Eta horixe da hizkuntzari bere jatortasuna galerazten dion bidea.

-Zer egin, orduan? --esango duzue-. Jatortasunari jarraituz, batasuna alde batera utzi? Ala, batasunari jarraituz, jatortasuna utzi alde batera?

Ez bata eta ez bestea. *Beltxak eta txuriak / mendian ardiak* -dio gure kopla herrikoi batek-. *Beltxak eta txuriak / mendian ardiak, / zuk ere ez dauzkazu / bentaja guztiak.*

Ez da munduan ezer eta inor bentaja guztiak dituenik. Bentaja bat bestearekin osatu beharra dago: beltxa, txuriarekin; txuria, beltxarekin. Batasunak ere ez dauzka bentaja guztiak; baina bera, bere baitan, bentaja bat da. Eta hizkuntza argitasunez, jatortasunez eta batasunez osatu beharra daukagu.

[Manuel Lekuona, *Idazlan Guztiak* 12. lib., 88-90. or.]

Ekin eta jarrai, Manuel Lekuonak erakutsi zigun bidetik! Eta ez ahaztu haren iloba Juan Mari Lekuona zena ere: bakoitza bere nortasunarekin eta bere jakinduriarekin, maisu eta lankide izan genituen Euskaltzaindian biak, bi oiartzuar horiek, osaba Manuel eta iloba Juan Mari, biak solaskide eta adiskide maiteak, eta bien itzalak argi egiten segitzen du, bereziki Euskaltzaindiko Herri Literatura batzordean.

Esan dut, eta kito.

Joxe Ramon Zubimendi,  
euskaltzain urgazlea eta Herri Literatura batzordeko idazkaria